

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Tuterako itsas plataforma multimodalaren “aukera paregabea” azpimarratu du

Bilboko Portuari lotutako salgaien garraiobideko logistika-zentro bat da

Martes, 12 de abril de 2016

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek itsas plataforma multimodala Erriberarako nahiz Nafarroa guztirako "aukera paregabea" izango dela azpimarratu du, portu lehor modura ezagunagoa dena; Bilboko Portuari lotutako trenbide nahiz errepide bidezko salgaiak kudeatu eta garraiatzeko logistika-zentro bat da, eta milioi bat euroko inbertsioarekin, enpresa esportatzaileei nahiz inportatzaileei beraien salgaien garraiorako sarbide bizkorragoa eta lehiakorragoa eskainiko die. Obrak abenduan hasi ziren, eta maiatzean martxan jarriko da.



Barkos Lehendakaria eta gainerako pertsonak, 17.000 metro koadroko plataforman, 9.000 edukiontzitarako tokia duena hasiera batean.

Ekitaldian izan dira ere Ayerdi lehendakariordea eta Elizalde kontseilaria, Nafarroako Gobernuaren aldetik, bai eta Nafarroako Parlamentuko ordezkariak ere, Ainhoa Aznarez lehendakaria buru dela; zonaldeko alkateak ere bertan izan dira, Tuterakoa barne (Eneko Larrarte); Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakari Asier Atutxak eta plataformako lehendakari Javier Garciak ere esku hartu dute aurkezpenean.

Zonalde geostrategikoa izatean eta bertako azpiegiturak ikusirik, Bilboko Portuko operadoreek gune hau Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hirian kokatzeko interesa ikusi dute. Plataformak 17.000 metro koadro ditu, eta gutxienez 9.000 edukiontzi mugituko ditu Bizkaiko hiriburuko portura eta beste portu batzuetara (Bartzelona edo Valentziara, adibidez).

Inbertsio horrekin Nekazaritza Elikagaien Hiriak eskainitako zerbitzuak indartzen dira, kasu honetan, denboran eta prezioan garraio intermodal lehiakor bat eskainiz kanpoko merkataritzan lan egiten duten Nafarroako industria guztiei. Hala, portuetarako lotura nahiz zerbitzuetarako sarbidea optimizatzen da, eta Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiriko Itsas Plataforma Multimodalak garraio-lanak arinduko ditu. Zonaldeko kargatzaileei sarbide bizkorragoa eta lehiakorragoa eskaintzea da helburua, gaur egun errepidez Europa iparraldera doazen kargak

bereganatzeko. Gogora ekarri behar da Nafarroako kanpoko merkataritzak (haren merkatu nagusiak Europa Atlantikoan daude), eta errepidez egiten dena batez ere, Plataforma Multimodal honekin beste tresna bat duela Europarako garraio iraunkorragoa lortzeko. Plataforma berri honi esker, itsasorako bidea errazten da Europako merkatuetan sartu ahal izateko.

Bere [agerraldian](#), Erriberan krisiak utzitako ondorioak aipatu ondoren (2007 eta 2013 artean 7.600 enplegu galdu dira), Barkos Lehendakariak proiektua anbizio handikoa dela esan du; izan ere, "gaur Bilbotik nazioarteko merkatuetarako sarbidea errazteaz hitz egiten ari gara, baina etorkizunean Bartzelonatik eta Valentziatik ere egin ahal dugu". Bestalde, Castejon trenbide-plataforma modura erabiltzeko aukera aipatu du; hala, treneko lotune intermodal bat sortuko zen Nekazaritza Elikagaien Hiriko gune intermodalaren osagarri bihurtzeko eta, "aldi berean, aduana-figura bat izateko lan egiten ari gara gune intermodal honetan kontrolak pasatzeko eta, horrenbestez, denbora aurreztu ahal izateko".

"Itsas plataforma multimodal hori Nafarroako Erribera guztiaren nazioarteko garapenean funtsezkoa izango da, eta balio erantsi handia emango du inguru horretara enpresa berri gehiago iristea erraztuko baitu –erantsi du Lehendakariak–. Gero eta zerbitzu gehiago eskaini, gure lurraldean jartzeko orduan eta aukera handiagoa izango dugu. Izan ere, azpiegitura horrek, Erriberako enpresei itsasotik nazioarteko merkatuetara iristeko sarbidea erraztuz, import-export enpresen sare multimodala hobetuko du. Hau da, salgaiak herrialde batetik bestera eramaten utziko du garraibide bat baino gehiago erabiliz, zama hautsi gabe eta edukiontzia hutsik joan gabe. Bestalde, plataforma horrek zonaldeko enpresen sinergiak baliatzeko aukera eskaintzen du".

Barkos Lehendakariak azpimarratu du nekazaritza-elikagaien sektoreak Nafarroako guztirako oro har eta Erriberarako bereziki garrantzi handia duela, eta gogora ekarri duenez, "nekazaritza-sektorea aintzat hartuta, nekazaritza-elikagaien industria Nafarroako BPGaren % 7,2 da, hau da, 24.584 enplegu sortzen ditu, Nafarroako gizarte-segurantzako afiliazioen % 9,6".

Azkenik, Nafarroako Lehendakariak nabarmendu duenez, "plataforma multimodal honen garapena mugarririk bat da, eta Tuterak Ebroko Korridorean duen eragina aprobetxatuz, Nafarroako hegoaldeko enpresak konektatzen uzten du, eta haien produktu nahiz zerbitzuak Estatuko eta nazioarteko ibilbideetan jartzen".



Lehendakariak Erriberaren garapenean portu lehor honek betetzeko duen zeregina azpimarratu du.

Galería de fotos



Agintariek plataformako lanak bisitatu dituzte.